

## **Uliako gazte aterpetxearen ingurumen politika**

Uliako aterpetxea natur gune baten erdi-erdian dago, babesturiko natur aldeetatik hurbil, eta ingurumenean ahalik eta eraginik txikiena izanda jardun nahi du, baita sentiberatasun hori langileei eta bezeroei helarazi ere.

Hori horrela, aterpetxeko zuzendaritzak honako konpromiso hauek bereganatu ditu:

-Ekipamendu efizienteak instalatuz eta horien erabilera kontrolatuz elektrizitate kontsumoa murriztea, eta eguzki bidezko elektrizitatea sortzea.

-Ur beroa lortzeko eguzki plaka termikoak eta gas galdara efizienteak erabiltzea.

-Ur kontsumoa instalazio efiziente baten bidez eta zentzuz erabilia murriztea. Maindireak eta eskuoihalak astean behin aldatuko dira, ur, energia eta produktu kimikoen kontsumoa murrizteko.

-Hondakin gutxiago sortzea, ezinbestekoak ez diren ontzikiak dituzten produktuak, banaka ontzikiratuak eta erabilera bakarrekoak alde batera utzita; aterpetxeko eta aterpekideen hondakin guztiak behar bezala kudeatzea; gai organikoak konposta egiteko biltzea eta konposta aterpetxeko lorategian erabiltzea.

-Ahalik eta gehien mugatzea gai arriskutsuen erabilera eta lehentasuna ematea bizi ziklo osoan ingurumenean eragin txikiagoa duten produktuei, esaterako, ekoetiketadunei.

-Otordu zerbitzuan ingurumen irizpideak erabiltzea, hala nola bertako elikagaiak eta elikagai freskoak erabiltzea, janari ekologikoak zein bidezko merkataritzakoak eskaintzea eta transgenikoak gaitzestea.

-Langileei prestakuntza eta aterpekideei informazioa ematea honako gaiei buruz: gure ingurumen helburuak lortzen laguntzeko nola jokatu, Donostia inguruko natur aberastasuna eta ingurumena errespetatuz egin daitezkeen jarduerak.

-Garapen iraunkorraren aldeko ildo hori lantzen eta etengabe hobetzen jarraitzea.

**Donostia, 2018ko urtarrilaren 19a**

Gorka Goiatxe  
**Gazteria eta Aterpetxeen Atalaren burua**